

Tubi barriro be txapeldun Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketan

10. orrialdea

Baltzolen gaineko liburua kalean

Baltzola ezetutera emoteko eta babestuteko *Baltzola, Ama Lurraren al-tzoa* izeneko liburua kaleratu dabe. Rafa Ugaldek koordinatu dau, eta historia, mitologia, arkeologia, espeleologia eta zoologian espezialistak idatzi dabe liburua. Erroteta etxeak argitaratu dau euskeraz eta gazteleraz, eta salgai dago Dima eta Igorren. 13. orrialdea



Eibar taldeko Añibarro jokalari zeberioztarrari alkarrizketea

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

211

2014ko garagarriaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

San Inazio jaiak Lemoan

Hile amaierara arte etxon behar garagarriean, herri bateko jaiak izan daitezak. Lemoan izango dira honeek eta hilaren 30ean botako dabe txupina JB Eguzkitza Meabe eskolakoak, jaiok bezperan hasten badira be.

Urteroko baltsen jaitsera umoretsu eta koloretsua lbaizabalelik abuztuaren 1ean, barikuz, izango da arrastiko 19:00etan. Txapelketak, kuadrilen arteko neurketa bitxiak eta Larregi edo Esne Beltzaren kontzertuak egongo dira beste batzuen artean.

Baina hile honetan ez dago saninazioak arte etxon behar jaietan ibilteko. Santomasak, sankristobalak, santamañeak, San Segismundo, madalenak, santiagoak eta santanak dagoz lehenago. Ermita inguru eta auzuneetan ospatuko dira honeek. 5. eta 7. orrialdeak



Igazko San Inazio jaietako txupinazoa Lemoan.

ARRATIA

Uger egiteko sasoia da

Aire zabaleko igerilekuan bainetako aukerea badago udan, Areatza eta Lemoan. Urri lehenengoaren 14ra arte, igerilekuak egun osoan egongo dira zabalik, goizeko hamaika edo hamaika terdietatik iluntzeko zortzirak arte. Bestalde, Igorreko kiroldegiko igerilekuen ordutegia aldatu egiten da udan, eta abuztuaren hamabost egunez zarratuta egongo dira igerilekuok. 7. orrialdea



ZEANURI

Xorokilera ibilaldia

Xorokilera ibilaldia eta bisita gidatua antolatu dabe Zeanurin hilaren 6rako. Joxerra Aihartza biologoak eta Angel Larrea historialariak erakutsiko dabez inguru honetako aberastasunak, harrobia ez ustiatzeko ekologistak abiatutako kanpainearen barruan.

Ekologistak eskuorri bat be bananduko dabe Zeanuriko etxe guztietan inguru honen gaineko informazioa emoten. Udaletxean alegazioak aurkeztu dabez eta udala alegazinoak aztertuten dabil. 6. orrialdea



ARRATIA

Giza kateko argazkiak ikusgai

Mila eta seirehun arratiar inguruk hartu eben parte Gure Esku Dago dinamikeak antolatutako Durango eta Iruñeako giza kateko 41. eta 99. kilometroetan bagilaren 8an. Horren lekuko dira begitu.org gure webgunean dagozan argazkiak edo zenbaki honetan erdiko orrietan ikusi daitezkanak.

Erabakiteko eskubidearen alde behar egiten jarraituko dau Arratiako lantaldeak. 8. eta 9. orrialdeak



ARRATIA ZURI-BALTZEAN

BALTSEOAREN DEBEKUA (I)

1963ra arte baltseoa galazota egon zan Zeanurin.

Uda jaien garaia da, eta jaiakaz batera jantatzeko aukerea izaten da. Gaur egun herriko plazetan jantzari gitxi ikusten bada be, orain dala ez urte asko arratiarrak jantza gosez egozan, baina baltseoan edo "agarrauan" egiteko debekuagaz egiten eben topo.

Areatzan 1897an ospatutako Euskal Jaiak zirala eta, informaziozino lana betetera etorri zan El Nervión egunkariko J. Larrea kronistak holako komentarioak egiten ebazan urri lehenengoaren 12ko alean: "... y en cuanto a las costumbres morales de Arratia,

todo cuanto se diga es poco; baste con mencionar que en la romería celebrada el jueves último en Arteaga (Artea), se prohibió el valsear, y lo mismo sucede en esta villa, pues las autoridades no permiten que los "mutilleks" se agarren a las "neskatillaks" para bailar al son del tamboril".

Urteak aurrera joan ahala Arratiako herri gehienetan debeku hau indarra galduz joan bazan be, Zeanurin ez zan bardin gertatu, hemen jantza lotua egitea 1963. urtera arte galazota egon zan eta. 1943ko garagarilaren 30ean, Zeanuriko alkateak zabalduetako agiri batean zera esaten zan: "No se admitirá para amenizar los festejos, más instrumento que el clásico tamboril quedando prohibido el llamado baile "agarrao"; no autorizándose más baile que



Ugaoko Javier García Rodrigok aldizkari batera bialdutako argazkia.

el llamado suelto, es decir, a base de chistu y tamboril, que es el único que de tiempo inmemorial ha venido practicándose en esta anteiglesia".

Autoridade zibilak baltseoaren aurkako jarkera gogorra mantentzen baeben, pulpitueta ez ziran atzean gelditu eta horren lekuko izan daiteke Martin Orbe Arratiako txistulari taldea. Zeanuri liburutxoan aitatzen dauan garai bateko abadeak neskai irakatsitako kopia hau:

*Baltseoa dala eta baltza ta baltza
lizuna da eta motza gazte ibilketan;
ondu daigun bizitza, emoiozu ezetza
mutil hori dozu artza eta heriotza...*

Jon Urutxurtu

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Bagilaren 30etik garagarilaren 6ra
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarotxena. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 7tik 13ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Goiira-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 14tik 20ra

N. Arieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Saillburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Garagarilaren 21etik 27ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45. Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.


Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzino taldea: Irati Urien.
Maketazinoa: Iñigo Iruarizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitx Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tiradea: 6.800 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



ZEURE BERBEA

San Antonio jaiak

San Antonio jaiak ospatu ostean, Igorreko EAJ-PNVk Udalarri jakinarazo gura deutso bizilagun asko hasarre dagozala, herritar guztien eskubideak lotutako gaiak eragiten deutesen gertakari larri batzuegatik.

1.- Herriko zaindariaren omenezko jaietako aurtengo kartelean, santuaren irudiak dagoz, eta irudi horreek iraingarriak izan leitezke sinesdunentzat. Probokatzearren probokau gura da? Erlijino guztiak errespetau behar dira. Atzen baten, heziketa eta legaltasun kontua da.

2.- Bagilaren 8a kendu egin da programaziotik, ezelako azalpenik barik. Zein da horretarako arrazoa? Udalak onartu behar dau danontzat gobernetan dauala, eta herrian hainbat sensibilitate dagozala.

3.- Buzoietan itxi dan jaietako programazinoa euskeraz baino ez dago. Pentsetan dogu logikoena eta arrazoizkoena Udaleko jakinarazpen guztiak hizkuntza bietan jasotea dala. Kontuan eukinda beste batzuetan atzeriko hizkuntzetan idatzitako informazinoa sartu deuskuela buzoietan, zergaitik ez euskeraz eta gaztelaniaz?

4.- San Antonio eguneko 12:00etako ohiko mezea kendu egin da egitarautik. Zergaitik? Jai-egitaraua proposatzen dauan eta horretan lan egiten dauan Jai Batzordea daukagun arren, Udala bera arduratu behar da sektarismo bako jaiak euki daiguzan, bardinta-

sunean oinarritutako eta sensibilitate zein sinesmen guztiak errespetauko dabezan jaiak eukiteko asmoz.

Atzenik, irmotasunez gaitzetsi gura doguz jaietako lehen astegoienean izandako liskarrak.

IGORREKO EAJ-PNV

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Txatal



Zulotuta edo apurtuta dagoan ehuna edo oihala konpontzeko ipinten jakon zatia da txatala, fraketan edo izaratan, berbarako (txatála, agoskatuta). Adibidea: "Joskileak etxerik etxe ibiltzen ziran erropeari txatalak-eta ipinten". Gaur egunean jarrera kontsumitzailea nagusitu danez, oihalak ez dira aprobetxetan lehenagoko moduan, eta berbea bera be ez dogu hainbeste erabiltzen. Erabili daigun berbea ehunak eurak be berrerabiltzen doguzan aldi berean!

ERETXIA

Hezkidetzeta eta hezkuntza ez-formala

Hezkuntza berbea entzun edo irakurten dogunean, eskola edo leku akademiko formalak etorten jakuz burura. Honeek, hezkuntza formalen sartzean dira. Baina badagoz beste hezkuntza mota batzuk, beste bi hain zuzen, hezkuntza ez-formala eta informala. Hezkuntza ez-formala, esparru akademiko arautuetatik kanpo geratzen da eta hezkuntza proiektuen bidez, ezagutza jakin batzuen trebatzea dauka helburu. Informala aldir, egunerokotasunean dagozan ikaste-esperientziak dira. Hiru hezkuntza motak soltean aitatu arren, alkarreraginean dagoz hartu-emon koherentea mantenduz.

Hezkuntza ez-formalak barruan hartzean dituan aisialdi proiektuetan hezkidetzeta gitxi batzuk bakarrik landuten dabe. Baina badakigu zer dan hezkidetzeta hezkuntza ez-formalean?

Hezkidetzak hezkuntza ereduak sortzea dauka helburu, andren eta gizonen arteko desbardintasunak gainditzeko, norberaren garapena bermatzeko eredu maskulinoa eta femerinoia alde batera itxiz, eta hezkuntzearen gaitasunak diseinetzea trebetasun eta abilezi barriak izateko roletatik kanpo.

Hezkuntza eredu honek hurrengo gaitasunak norberenganazera bultzatu behar gaitu: norbere identitatea eregiten ikasi, alkarbizitzan ikasi, pentsetan ikasi, autonomoa izaten ikasi, norberaren poderea izaten ikasi, ebatziak hartzean ikasi eta testuinguruan eragiten ikasi. Baita balore honeek eskuratzera be: aukera eta tratu bardintasuna, konpromisoa, aniztasuna, justizia, bizikidetzeta, zoriontasuna, lankidetzeta...

Zein da hezkuntza ez-formalaren testuingurua gaur egun?

Bizi garan jentarte patriarkala da. Gizon-andra dikotomia dauka oinarri sistema honek eta ondorioz andra eta gizonen arteko desbar-



XABIER PASTOR GARAY

Bardintasun teknikaria

dintasunak eta diskriminazioak sortzean ditu. Sistema patriarkalak hainbat mekanismo erabiltzen ditu, hala nola, rola, espektatiba sexistak, estereotipoak... Honen guztiaren ondorioz, andra eta gizonen errealidadeak desbardinak izango dira; baina ez hori bakarrik, desbardinak eta hierarkizatuak.

Gizon eta andren hartu-emonak ez dira hartu-emon horizontalak, bertikalak baino. Menperatzen menperatzen hartu-emonak dira, podere hartu-emonak hain zuzen. Menperatzeko mekanismo bortitzena edozein motatako indarkeria da (psikologikoa, sexuala, ekonomikoa, soziala eta fisikoa).

Orientazino sexualari jagokonez, heterosexualidadea da onartuta dagoana. Sexualidadean kantidadea baloretan da, ez kalidadea.

Identidadearen eraikuntzea be erabat sexista da. Sistema patriarkalak argi dauka zelango mutil/gizon eta neska/andra gura dituan. Eta oso gatxa izaten da persona batentzat, atxikitzen jakozan ezaugarriak bat ez egitea (Norberaren desioak vs patriarkadua gura dauana).

Zelan egin aurre honeri hezkuntza ez-formaletik desbardintasunak gainditeko?

Lau esparru nagusi dagoz: erakundearen kultura sexista,

hezkuntza eragileak, hezkuntza plana eta erakunde eta egitura. Eta esparru bakoitzean neurri batzuk finkatu beharko dira.

Erakundearen kultura sexista gainditzeko neurriak honeek dira: hezkuntza eragile guztiak hezkidetzeta bermatzeko konpromisoa hartu; bardintasunaren inguruko araudia jaso eta proiektu arduradunak sensibilizazinoa eta preskakuntzea jaso; andren kontrako indarkeria ezagutu; erakundearen persona guztien parte-hartze orekatua bermatu; praktika hezkidetzetaile onak sistematizatu eta ingurukoakaz lankidetzan aritzeko intenzino aktiboa izan.

Hezkuntza eragile guztiak zuzendutako neurriak barriz honeek: hezkuntza emozionala eta sexuala planifikatu; persona bakoitzaren hezkuntza sentimental, uniberso sinbolikoa eta proiektu biografikoa sustatu; komunikazino hezkidetzetaile izan eta programen parte hartzaileak ahalduntzea.

Hezkuntza-planean txertatzeko neurriak honeek: programazinoan dagoan sexismo gradua diagnostikatu; horreek zuzentzeko neurriak txertatu; diskriminazino edo desbardintasunai aurre egin; sexismoari aurre egiteko printzipio eta baloreak zehaztu; norberaren sergutasuna eta independetzia bultzatzen dituen metodologiak finkatu eta ebaluazinoan hezkidetzaren adierazleak aztertzea.

Erakunde eta egituretan txertatzeko neurriak: partaide guztien parte-hartze orekatua izateko espazioa eta denporea zehaztu; eraso sexuala eta jazarpen sexistak prebeniduteko, detektetako eta horreei aurre egiteko plan bat ezarri eta andra edo gizonen presentzia gitxi dan esparruetan jagokonez sexuaren ordezkariak handitu.

Amaituteko, gaur egun bizi doguzan desbardintasun eta diskriminazinoai aurre egiteko ezinbestekoa da guztion konpromisoa. Guztiok gara sistema patriarkal honen partaide, eta era batera edo bestera geuk indartzen doguz sortuta dagozan errealidadeak. Beraz, jantzi betaurreko moreak eta suntsitu patriarkadua!

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

MONDRAGON 35

LUMATUTEN**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA****Aita apurrin
asilora**

Aldi baten, etxaguntzako baserri bateko aitak azienda guztiak emon eutsazan semeari zahartzaroan ezere falta barik biziko zalakotan. Lehenengotan, tira, dana zan armonia eta ondo-esana, baina egunak joan egunak etorri, aita hori aguretz joian, binke aguretz ze, gorputza zor, ibilpidea loka, burua arin, gaixokarik birik baten, berba baten esanda, errukarri bizi zan gizajoa. Semeak, aita gauza zan arte, ondo esan eta nahiera guztiak egiten eutsazan eta aginduak jaramon. Baina, apurka-apurka, aita enberazu bihurtu jakon eta laguntza barik amarrea eta sujezinoa zan etxe koentzat. Buruari bueltaka eragoion seme horrek eta birritan pentsau barik, hartu bere aita lepoan apurrin eta herriko ospitale edo asilora eroan eban bihotzak ereikadarik egin be egin barik. Etxaguntzako etxal-detik asilora alozoko bide arloa

egoanez, biderdi inguruan deskantsu pitin bat hartuteko jesarri egin ziran aita-semeok bidertzeko harri zapal baten gainean. Biak egozan isilik eta burumakur agoa askatuteko bildurrez zein behar ez danaren bat entzun batak-besteagandik. Halango baten semeak zizpuruka barruntau eban bere aita, begi bietatik itaxureko ur tantakadak baino negar-arpulu lodiagoak dariola. Horretara, semea zutundu egin jakon eta aurrerik hara esan:

- Aita baina, negar zeri egiten deutsan baino ez da berorrek?

- Negar egingo ez joat ba? Aiko seme, tertzio honetan damututeak balio be ez jaustak, nirea aspaldirik eginda dagoalako, baina nik neuk be nire aita asilora eroan nebanean hementxe bertan hartu naioan deskantsua eta hik be, "zer ikusi ha ikasi" egin deustak. Ondo merezita jaukat eginaren pagua. Baina, hik be, hatze bete seme daukazak ostein eta hi heu be aguretuko haz eta igarri be egin barik gainera, ikusiko dok!

Semeak orduan, hartu barriro aita zaharra apurrin lepoan eta eaurt eginez asilora barik etxera ekarri eban kontzientziak jota batetik eta zein berari be beste hainbeste pasau bestetik. Hantxe akabau ziran zaharrak asilora eroateko diteak. Eta aurrerantzean "haltzaren ondoan haltza erne" zan hango etxaguntzako etxaldean.

ZERTZEAN**SAIOA LARREA****BEGI TXINDORRA**

Uda hasi da, herriko jaiak, egun luzeak eta eguraldiak iragari dauan moduan eta udeagaz batera BEGITU argazki lehiaketean ipinten dau martxan. Urtero gure irakurleak, bialtzen deuskuen mundu zabalean ateratako argazki eder-ederrak konpartiduteko. Epaimahaiak onenatzat jotzen dauan argazkiaren egileak, astegoiaren bat landetxe baten izango dau sarizat.

Argazki lehiaketearen oinarriak:

- 1- Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasotzen dauan edonor.
- 2- Gaia: argazkiak 2014 urtean egindako bialjeetan edo oporretan egindakoak izango dira.
- 3- Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
- 4- Nora bialdu: Argazkiak begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira.
- 5- Aurkezteko epea: 2014ko garagarilaren 1etik urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztua eta urri lehenengoko zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, HORREK EZ DAU ESAN GURA ARGITARATUTAKO HORREEK DIRALA IRABAZLEAK.
- 6- Epaimahaiak: BEGITU Aldizkariako erredakzino taldeak osotuko dau.
- 7- Epaia: Epaimahaiak urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenegun argitaratuko da aldizkari honetan.
- 8- Saria: Persona birentzako astegoiaren bat Nafarroako landetxe baten.
- 9- Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabenak oinarri honek onartzen dituela esan gura dau.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48 | 42 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika Implantateak
Estetika

Marina Uriagaitza Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Biokala
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 101
R.F.S. 21/06

FISIOTERAPIA
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

Grupo SasoiBide

www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

LEMOA

Garagarri eta abuztu arteko jaiak

Udearen erdi-erdian garagarri eta abuztu artean, San Inazio jaiak ospatzen dabaz

Lemoan eta horretarako sei jai egun antolatu ditue, bakotxa gai baten inguruan.



Jaietako kartel irabazlea. Egilea: Maite Garcia Garcia.

Erredakzioa

Hilaren 29a, kirol eguna izango da eta futbola, padel-a, frontenis eta eskupelota txapelketen finalak jokatu dira egun horretan. Hurrengo, mozorro eguna: kuadrilen afariak eta kontzertuak izango dira ekitaldi nagusiak egun horretan. San Inazio egunean, euskal jaiak izango da. Abuztuaren 2a play-back eguna izango da eta gastronomiak hartuko dau eguna

eta musikeak gau osoa, gaupasa egiteko. Domekan, jaietako atzen egunean, hamburgesa pintxoak salduko dira Elizondon, San Filippo gaixotasuna ikertzeko dirua jasoteko.

Garagarriak 29, martitzena Kirol eguna

12:00etan umeen pentatloia. Urprobak. Adin tarteak: 7-9 urte/ 10-12 urte/ 13-15 urte.

17:00etan, 15 urtetik behe-

rakoen Futbol 7 Txapelketearen finala. Arlonagusian.

18:00etan, 15 urtetik gorako Futbol 7 Txapelketearen finala. Arlonagusian.

18:30etan, eskupelota finala kiroldegian.

19:00etan, Padel eta frontenis Txapelketen finalak.

Partiduak amaitu ondoren, kopau eskolan parte hartzaile guztiarentzat.

Garagarriak 30, eguaztena Mozorro eguna. Gaia: natura

18:30etan, jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan.

19:00etan, txupinazioa eta jaietako kartel lehiaketaren sari banaketak, udaletxeko plazan. Aurten Juan Bautista Eguzkitza Meabe Ikastetxearen eskutik hasiko dira jaiak.

Mozorro lehiaketan parte hartzean daben guztiak kalejiran urtego dira. Sariak kalejira amaieran emongo dira Elizondon.

21:00etan, kuadrilen afaria kiroldegian.

22:00etatik 23:30era, disko-karaoketa kiroldegian.

23:00etan, Zeinke taldearen kontzertua Elizondon.

00:15etan, Larregi taldearen kontzertua Elizondon.

01:45etan, Oxabi erromeria taldeagaz, erromeria Elizondon.

Garagarriak 31, eguena Euskal Jaia San Inazio plazan

11:30etan, XVII. Artisautza Azokea. Atxeta taberna ondoko plazan.

12:30etan, mezea San Inazio baseleian.

13:15etan, Durundibarri Dantza Taldea eta Lemoako Abesbatza- ren ekitaldia San Inazio plazan.

18:00etan, Ugel Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat. San Inazio plazan.

18:30etan, Ugel Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat. San Inazio plazan.

18:30etan, "Xaibor Txiki eta gazteen diskofesta" San Inazio plazan. CDak danontzat.

19:00etan, Bola Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

19:30etan, Bola Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

20:30etan, Aiko alkarteak eskeinutako jantzaldi-erromeria Elizondon.

Oharra: Egunean zehar base- rritar jantzita dagozanai, plazan taloa eskuratzeko txartela emongo jakie. Txartelak 13:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:00etara bananduko dira.

Abuztuak 1, barikua Play-back eguna

16:30etan, esku pelota partiduak, Txutxin Txapelketearen finalak.

19:00etan, baltsen jeitsiera Ibaizabaletik. Urtekerea Tallerretako zubian izango da eta helmuga zubi barrian. Urtekerak binaka egingo dira.

20:30etan, Arrantza eta Ehiza alkarteak sardina jana eskeiniko dau. Elizondon.

22:30etan, 12 urtetik beherako lemoaztarren Play-back Lehiaketea Elizondon.

23:30etan, Gose taldearen kontzertua Elizondon.

01:00etan, 12 urtetik gorako lemoaztarren Play-back Lehiaketea Elizondon.

Play-back-ean parte hartzeako izen emotea 20:00etatik 21:00etara Elizondoko Kultur Gunean.

02:00etan, Izerdi Gorriak taldeagaz erromeria.

Abuztuak 2, zapatua Gastronomía eta gaupasa eguna

11:00etatik 14:00etara, ume eta gazteentzako puzgarri parkea eta jokoak eskoletan.

14:15etik 14:45era, bits jaiak eskoletan.

13:30etan, Paella, Tortilla, Gi-

sau eta Bakailao Lehiaketetako lapikoen aurkezpena. Ondoren herri bazkaria eskoletan. Bazkari- rako, Jai Batzordeak mahaiak, ja- teko tresnak, ogia eta ura ipiniko ditu. Bazkarira joan ahal izateko, txartelak garagarriaren 14a baino lehen hartu behar dira udale- txean.

17:00etan, umeentzako tailerrak eta jolasak Zaztaparrak Asti Tal- deak antolatuta, eskoletan. Izen emotea, garagarriaren 21etik 24ra arte, 11:00etatik 14:00eta- ra ludotekan.

17:00etan, Mus eta Briska Txapel- ketak.

19:00etan, Kuadrilen arteko "Ra- lly umoristiko" musikatua. Jubila- duen tabernan hasiko da. Erro- pa zaharra eroan behar da.

23:00etan, DJ-a Elizondon: Zigor DZ.

23:30etan, Esne Beltza taldearen kontzertua Elizondon.

01:30etan, Trikizio taldeagaz erro- meria Elizondon.

05:00etan, barsuskarria Elizon- don.

Oharra: 02:30etan eta 04:30etan, Arratiako herrietatik pasauko di- ran bueltako autobusak. Urteke- rea Correos-etik.

Abuztuak 3, domekoa Alkartasun eguna

19:30etan, Eusko Label okeleagaz egindako hamburgesa dastaketea Elizondon.

Pintxoak 1,5 eurotan salduko dira eta jasoten dan diru guztia StopSanfilippo Fundazioarentzat izango da.

22:00etan, "Garsu" erre Elizon- don.

Lemoako Harriketarrak Gazte Asanbladakoak atzen urteetan lez ekintzak antolatuko ditue San Inazio jaiak begira. BEGITUK edizinoa zarratu ebanean oraindino progra- mazinoa zehaztu barik egoan. San Inazio egunerako kontzertua an- tolatu dabe Mandoilek taldeagaz eta domekan aurreko urteetan lez terrazea ipiniko dabe txosnagu- nean. Gaztetxeok kartelak ater- arako dabaz programazinoa prest dagoanean.

**Jai batzordeak eta Lemoako Udalak**
Gora San Inazioak!
JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

Zugaitik BEGITUTEN dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
**Lehendakari Agirre, 8 behea**
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak
**IGORRE**
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52
Sabino Arana 35
94 657 3898
AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

FISIK
FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**ASESORIA Gorbeialde**
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

IGORRE

Euskal Herriko Auzitegi Gorenak baliobakotu egin ditu Negarrako kaleratzeak

Erredakzioa

Hogeta hamar behargin kaleratu ebazan EEEda, balio bakoizat jo dau Auzitegiak eta kaleratuak berronartzea eskatzen deutso enpreseari. Kaleratzeak baliobakotzat joteko, hiru arrazoi nagusi aitatzen dira epaian: eskubide sindikalen urraketea, asmo txarra negoziazioetan eta kaleratuak aukeratzeko orduan erizpide faltea.

Sano positibotzat jo dau epaia Alvaro Ruiz CCOO sindikatuak eta enpresa batzordeko presidentek, eta Negarran enpleguak mantentidutearen alde egiten jarraituko

dabela dino. "Enpresek zer egingo zain gagoz orain" dino Ruizek.

Eskubide sindikalen urraketea Kaleratze kolektiboaren tramiteak urtailean hasi, eta apirlean kaleratu ebazan Negarrak 30 behargin. CCOO-ren arabera, sindikatuak, enpresek "produktzioaz libretako helburua" eukala "lanesku zuzena kenduz; 2012tik plantillea % 52 murriztu gura dau eta". Jazarpen sindikala be, salatu eban orduan sindikatuak. Izan be, 30 behargin kaleratuen artean, 16 sindikatu honetakoak ziran, eta horeetako hiru enpresa batzordekoak.

IGORRE

Kaleratzeen kontrako konzentrazioa Ormazabal

Erredakzioa

Ormazabaleko zuzendaritzak ez dituala beteten lan hitzarmenean jasoten diran neurriak salatuteko, Ormazabal taldearen egoitzaren aurrean, Sondikan, konzentrazioa egin eban, Ormazabal y Cia, Tecnichapa eta Wec (Velatia taldekoak) enpresek enpresa batzordeak eta ELA eta LAB sindikatuak ordezkaririk.

Ormazabal y Cia 5 behargin kaleratu ebazan abenduan eta geroago enpresa zuzendaritzak behargin gehienai aplikau jakien etendura Enplegua Erreguleto Espedientea aurkeztu eban, "ezelango arrazoi

barik" ELA sindikatuaren arabera. Izan be, orain dala aste gitxi prensan, lberdrolak Ormazabalegaz 19 milioe euroko kontratua sinatu dauala edota internalizazioa bultzatzeko asmoz, Ormazabalek Leipzig urian bulego bat zabaldu dauala agertu zan. Bitartean, "EEEdaren aplikazioaren ondorioz, langileak euren langabezia konsumitzen dabe eta hori gitxi baltiz, zuzendaritzak beharginak EEEdan dagozan bitartean ordu estrak egitea eskatu deutso enpresa batzordeari" salatu dau ELA sindikatuak.

Beharginak, enpreseari mahai baten jesarte eta beharginak berro-nartutea eskatuten deusie.

ARRATIA

Udan hilean behin aterako da BEGITU Aldizkaria

Erredakzioa

BEGITU hamabostekariak urtean 22 zenbaki ateraten ditu. Garagarilean eta abuztuan, hile bakoitzean, zenbaki bakarria kaleratzen

dau bertako beharginak oporrak hartu ahal izateko. Hurrengo zenbakia abuztuaren 1eko izango da. Urri lehenengotik hasita, barriro be, hamabostero kaleratuko da BEGITU.

ZEBERIO

Julian Uria hil da

Erredakzioa

Arlitzako (Zeberio), Auzkorta baserriko Julian Uria hil egin zan bagilaren 19an, 104 urte eukazala. Auzkorta baserria 2013ko urri bigarrenaren 22an, erre egin zan, baina auzunean bertan biziten jarraitu eban hil arte Julian Uria. Felipe Ipiña auzokoaren etxean bizi ziran Auzkortaok euren baserria konpondu bitartean. Hileta eleizkizunak Santo Tomas eleizan izan ziran hurrengo egunean.

Ezaguna zan Julian BEGITUREN irakurleentzat 2010eko zementarian bere arreba Lorentzak euren bizimodua kontau ebanetik. Harrezkerotik, hurretik jarraitu doguz familia honen bizitzaren gorabeherak. Lorentza 106 urte beteta hil zan 2013ko zezeilaren 5ean.


DIMA

Bizkaiko haizeolarik zaharrena topau dabe

Erredakzioa

Bizkaiko mendiko burdinola edo haizeola aztarnategirik zaharrena topau dabe Urkiolako Parke Naturalan, Dimako lurretan. Karbono-14 bidezko datazioaren arabera sasoi erromatar berantiarrekoa da.

Bizkaiko Foru Aldundiak finantziatzen dauz antxinasunaren datazioarako probak eta metodo honegaz Bizkaian datatu dan mendiko burdinolarik zaharrena da Akalarra. Akalarra funtzionamentuan egon zan K.o. IV. eta V. mendeetan. Aztarnak lur pribaduan dagoz, baina aztarnategira sartzea baimenduta dago eta interpretazio panela ipini dabe bertan.



ZEANURI

Xorokil harrobira ibilaldia



Erredakzioa

Arratia Bizirik-ek eskuorri bat bananduko dau Zeanuriko etxe guztietan, Xorokil harrobiaren gaineko informazioa emoteko eta parte hartzea eskatuteko, harrobi honen ustiapena gauzatu ez daiten. Alegazioak aurkeztu dira udaletxean eta orain Udala alegazinoak aztertzen dabil. Xorokil ingurua ezagutzera emoteko ibilaldi gidatua be antolatu dabe, Joxerra Aihartza biologoa eta Angel Larrea historialariaren eskutik.

Apirilaren 30ean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Cantera de Zeanuri SL-k, Xorokil harrobiaren erauzketea eta ustiapena egiteko Jarduera sailkatuaren lizentzia eskatu dauala argitaratu zanetik, ekologistak kanpaina bat abiatu dabe harrobia ustiatu ez dagien. Holan, herritarren 600 alegazinoak gora aurkeztu dauz Arratia Bizirik taldeak udaletxean, baita proiektuaren kontra Change.org-en jasotako sinadurak be.

Udalak bere aldetik ez dauka prozesua gelditzeko asmonik. Dana dala,

alegazinoen artean "honeri atzera egiteko moduren bat balego", atzera egingo dabela dino Izaskun Sagama Zeanuriko alkateak. "Hau aspalditik dator. 1983an udalbatzak arau subsidiarioetan sartu eban kanterea eta ago batez onartu zan. 1998an, arauak barriztu eta barriro be onartu zan" dino alkateak. 2000. urtean jai-be batzuk hartu-emonetan ipini ziran kanterea ustiatuko dauan enpresegaz eta 3 hektareatik 34 hektareara handitzea eskatu eban. 2004ean arau ordezkoren aldaketari hasikerea emon jakon, eta udalak handitze hori 2007an onartu eban. Aurtengo maiatzaren 27ko udalbatzan, EH Bilduk eskatu eban galdeketa bat egitea, baina alkateak ez ebalu ikusten udaltik hori egitea erantzun eban.

Ekologistak galdeketa bat egingo dabela dinoe. Horren bitartez, zeanuriztarrek harrobia ustiatzearen alde ala kontra dagozan jakin gura dabe. "Ubideztarrek ez dabe gura (100 alegazino inguru) baina zeanuriztarrok kantera hau gura dogu?" itauntzen dabe eskuorrian.

Ibilaldi gidatua

Herritarrek ingurua ezagutu dagien, Xorokil harrobira ibilaldi gidatua antolatu dabe garagarilaren 6rako. Joserra Aihartza biologoak eta Angel Larrea historialariak azalduko dabez leku honetako ezaugarriak: fauna eta flora, eta ondare historiko kulturala, hurrengo hurrengo.

Ibilaldi honetan parte hartzeako topagune bi dagoz: 09:30ean Zeanuriko plazan edo 10:00etan Barazarren.

ARRATIA

Oporrak laster ala etxon behar?

Erredakzioa

Egun luzeak, beroa, jaiak... hasi da uda, baina oporrak ez dira urte sasoi bezain luzeak. Hori oporrak izatekotan, ze badagoz egon, enplegurik ez daukien eta oporrik be ez, edo udan beharra topetan dabanak... Horixe da gure hile honetako itauna: Aurten, egingo dozu oporrik udan? Eta erantzun posibleak:

-Bai, udan hartuko dodaz oporrak.
-Ez, udan ez, beste urte sasoi baten

hartzean dodaz.

-Ez, udan behar egingo dot.
-Ez, langabezia nago.

Futbola, pelotea, mendia edo bizikletea

Gure inkestea erantzun daben irakurle guztiak kirola egiten dabela erantzun dabe. Gehienak futbola, pelotea, mendia edo bizikletea. Izan be, % 80k hartu dabe aukera hori. Beste % 20k herri kirolak, atletismoa edo olinpiadetako kirolen bat.

KIRRU • ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 34 baxo • 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

15 Euro DESKONTUA
LEHENENGO URTEREKO KUPATUA
GESOREAK
basolo Emaldi
ENPLEGU ADMINISTRAZIOA
Abokatuak
☎ 620. 57.86.04
✉ asierabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

umean made
sem
0-10
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

Gogoratu leku barrian gagozala

ARRATIA

Uger egiteko sasoia

Erredakzioa

Arratian kostalderik ez, eta udan freskaldi bat hartzeako eta uger egiteko aukerea Areatza, Igorre eta Lemoako igerilekuak eskeintzen dabe. Igorreko kiroldegian, urte osoan dagoz igerilekuak zabalik, baina udan ordutegia aldatuten dabe. Areatza eta Lemoako aire zabaleko udal igerilekuak, barriz, uda partean zabalduen dabez atek urri lehenengoaren 7ra arte Areatzakoak eta 14ra arte Lemoakoak.

Ordutegiak

Igorreko kiroldegiko igerilekuak, garagarriean, urte osoan izan daben ordutegi bardina izango dabe. Hau da, astelehenetik barikura, 09:00etatik 22:00ak arte, zapatuetan 09:00etatik 21:00etara eta domeka eta jai egunetan 10:00etatik 14:00ak arte. Baina ordutegi honek al-

daketak izango ditu abuztuan eta egun batzuetan zarratuta egongo dira igerilekuok. Domeka guztietan egongo dira zarratuta, baita abuztuaren 3tik 18ra arte. Eta ordutegia goizeko 09:00etatik 14:00ak arte izango da.

Areatzako igerilekuak 11:00etatik 20:00etara dagoz zabalik eta Lemoakoak 11:30etik 20:00etara.

Ludotekea igerilekuan

Uger egiteko bakarrik ez, olgetako be leku aproposak dira igerilekuak eta Lemoako Udalak ludoteka zerbitzua bertan emongo dau hilaren 7tik 18ra eguraldia ona bada. Hiru eta hamabi urte bitarteko umeentzat izango da 11:00etatik 14:00etara. 11:00etan ludotekan itxi egin behar dira umeak, udalak ez dau bere gain hartuko 11:00etan ludotekan ez dagozan umeen ardura eta. 14:00etan, eskolan jaso behar dira umeak, igerilekuetatik bueltan.

ARRATIA

Ermita inguruetan jai ugari ospatuko dira hileon

Erredakzioa

Auzunetan eta ermita inguruetan, santuaren izenpeko jai ugari ospatuten dira garagarrian. Askotan ospatuteko modua, mezea ermitan eta barauskaria meza ostean izaten da, gehienetan trikitixearen soinuak lagunduta.

Santomasak, sankristobalak, santamañeak, San Segismundo, madalenak, santiagoak, santanak eta saninazioak dira hile honetan ermita inguruetan ospatuko diran egunak.

San Tomas eguna hilaren 3an da eta Areatzan ospatuko da.

Igorreko San Kristobal auzunera be helduko dira jaiak.

San Kristobal (Igorre)
Garagarriak 10, eguna
12:00etan, mezea.

Garagarriak 11, barikua
21:00etan, parrilladea.

Garagarriak 12, zapatua
18:00etan, Tortilla eta Bakailao Txapelketetan izen emotea.

19:00etan, umeentzat Txagu-Magu.

20:00etan, tortillen aurkezpena.

20:30ean, bakailoaren aurkezpena.

22:00etan, Arantzarte jantza taldea.

23:00etan, erromeria Babel Covers.

Garagarriak 13, domeka
08:00etan, San Kristobaleko XI. Mendi Martxan izen emotea.
08:30ean, martxearen urtekerea.
13:00etan, mezea.
13:30ean, pintxo-potea.
14:15ean, Ugel Txapelketea.

Santamañe, Madalenak...

Hilaren 18an Santa Marina eta San Segismundo eguna da. Santamarinak edo santamañeak, Artean eta Dimako Bargondian ospatuten dira. San Segismundo jaiak Zeberioko Upon. Madalenak, hilaren 22an, Dimako Lamindaon eta Ubideko Madalena auzunetan ospatuten dira. Atzen honetan, Paella Lehiaketea, heritarren arteko play-back-a edo karaokea, sardina jana eta jantzaldia egongo dira.

Santiago eta San Inazio jaiak
Santiago eguna, hilak 25, Lemoako Arrañon eta Arteako eta Dimako Santiago auzunetan ospatuten da. Zeanuriko Ipiñaburuko parrokiaren be ospatuten da egun hau.

Santiago jaiak (Ipiñaburu)
Garagarriak 19, zapatua
14:00etan, auzo kantu bazkaria.

Ondoren Briska eta Mus Txapelketak.
19:30ean, txokolatea.

Garagarriak 25, barikua
11:30ean, meza nagusia.

Ander Manterolari omenaldia. Jarraian, idi-probak. Jon Etxebarriaren idiak (Zeanuri) vs Jon Lacruz-en idiak (Gatika).

Garagarriak 26, zapatua
12:00etan, arimen mezea eta ondoren barauskarria.

Lemoan, Tallerretan eta Lemorietan jai egitaraua prestatu dabe Santa Ana egunerako, hilak 26.

Tallerreta eta Lemoretako jaiak
Garagarriak 26, zapatua
11:00etan, txupinazoa eta kalejireta (Atutxan).

14:30ean, saiheski jana (Zementoseko etxeetan).

17:30ean, jolasak (ugela, piñata, dardoak...).

Tortilla Txapelketea. Auzoko piper onenak aukeratzeko lehiaketea.

19:00etan, kontzertua: Bou taldea eta sorpresak.

Amaieran jaietako panpina erretea.

San Inazio egunean, Bizkaia osotik etorritako mendizaleak igongo dira Gorbeia. Jai hau jasangarriagoa egiteko eta auto kopurua murrizteko, urtero lez, autobus zerbitzua egongo da Areatzatik Pagomakurreraino.



Areatzako igerilekuak.

ARRATIA

Arratiako akar batek irabazi dau Garrastatxuko saria

Irati Urien

Antxon Iturriagak eta Aitor Rekarrik zaletasun bat partekatuten dabe: ahuntzak. Garrastatxuko lehenengo saria irabazi eben akarretan. Areatzako eta Arteako lehenengoz aurkeztu dira sanantonioetan Baranbion (Araba) egiten dan txapelketara. Protagonista saritua Lekandan dago orain, beste akarragaz eta ahuntzakaz batera.

Zenbat buru daukabez eta ze arrazatakoak?

A.I.: Asko. Azpigorri arrazea da gurea.

A.R.: Bion artean 70 inguru eukiko doguz.

Nozdiak daukazue ahuntzarako afizinoa?

A.I.: Betidanik. Ahuntzak lehen beuki izan dodaz baina Azpigorriak ez. Azpigorriak orain dala urte pare bat daukadaz.

A.R.: Nik nire kontura eukiten nebazan. Basoan jente gehiagok daukaz baina edade kontua dala eta ni gustorago nago Antxonegaz, eta orain alkarregaz gabiz ahuntz

asuntoan. Akarra Areatzako laguna dogun Borjarena zan eta Antxonek berari erosi eutsan. Ahuntzak be kendu egin ebazan, batzuk nik erosi nebazan eta besteak Antxonek. Akar bi egoazan, baktzak bana erosi genduan biok batera biak erabilteko. Antxon berotu egin zan, berea eroan egin behar dauala eta ea lagunduko neutsan.

A.I.: Jakin be ez genduan egin irabaziko genduanik, eroan genduan eroatearren.

Zer eukan zuen akarrak besteak ez eukiena?

A.R.: Pauta batzuk eskatuten da-



Aitor Rekarrik eta Antxon Iturriaga.

bez. Kolore garbiak...

A.I.: Arraza purukoak izatea atzen baten.

Lehiaketarako prestaketaren bat egin eutsazuen akarrari?

A.R.: Ez, ez genduan eroan beste askok egiten daben moduan prentsu asko emonda lodituta eroateko.

A.I.: Basotik bajatu genduan aurreko egunean. Prentsu barik.

Izena dauka akarrak?

A.I.: Ez.

A.R.: Ez dakit ba ipiniko deusagun.

Zein izan zan saria?

A.R.: Trofeoa eta dirua.

A.I.: Baina kontua ez da hori, inportanteena irabaztearren hartuten dozun famea da.

Parte hartze handia egon zan?

A.I.: Bai, berrogei akar inguru egoazan.

A.R.: Urte askoan zehar parte hartu dauan jentea egon zan. Gu egundo be joan barik eta inok ezagutu ez baina gero hurreratu jakuzan bat

edo beste nongoak garan, akar horren umerik saltzeako daukagun...

Beste lehiaketaren batera joateko asmorik?

A.I.: Mañarian beste bat egoten da, Bizkaia mailakoa.

A.R.: Izan leike, baina horretarako Azpigorrien asoziazino baten egon behar zara.

A.I.: Gu ez gagoz sartuta baina badaukagu sartzeako asmoa.

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, 3. 48550 LEZAR, Bizkaia
Tel. 659 482 830 / fax 659 200 717

ZEKUTZE
GATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejantza@hotmail.com

MERKA LABELA-HARATEGIA
Ereko produktok
• Txerizak
• Olotzizak
• Baskantzak
• Saltritzak
• Harburgesak
Arratiako produktok
• Baserriko okela
• Detsiak
• Baserriko arrautzak
• Txerriak
• Harriak
• Gariak (fruta eta barazkiak)
Herriko lekuak
Urdulaketa - Igortze 17 94 631 61 19 herrikoherriak@urdu.com

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

GURE ESKU DAGO

Erabakiteko eskubidearen alde jarraituko dau Gure Esku Dagok

Mila eta seirehun arratiar kontabilizau ebezan Arratiako lantaldekoak Durango eta Iruñea arteko giza katean, "Euskal Herrian inoz egin izan dan mobilizaziorik handiengan, edo behintzat handienetako baten" euren esanetan.

**Erredakzinoa**

Ekimen honen sano balorazio ona egiten dabe Arratiakoak. Holaringo gauza bat antolatuten dan lehenengo aldia izan zanez, zer hobetu be egon daiteke, baina giza katea sano ondo urten zala dinoe. Aitatzekoa da, guztira 900 autobus ipini zirala, Euskal Herriko edozein txokotatik egokitutako km.ra joateko eta ez zala istripurik gertatu. Bizkaiko antolakuntza ona be nabarmendu dau Arratiako Gure Esku Dagok eta giza katean egon zan giro ona sano ondo balorau dabe. Hobetu beharrekoen

artean, akaso, guneen mapen faltea edo ekitaldietara ailegetako denpora gitxiegi egoala.

Erabakiteko eskubidearen alde

Erabakiteko eskubidearen alde behar egiten jarraituko dau Gure Esku Dago dinamikeak. "Pausuak emon beharko dira" dino Ainara Fernandez Lemoako lantaldekoak. Pausu horreek hurrengo kursoan zehatuko dirala dino eta "Eskozia eta Kataluniako prozesu independentisten lanketea" egin behar dala orain.

Arratiako lantaldeak be jarrai-

tuko dau beharren eta herritarren ekimen honetan parte hartzeako ateara zabalik dagozala gogoratu arazo gura dau Fernandezek "parte hartzea sustatu behar da, zenbat eta kolore gehiagoko jentek parte hartu, hobeto" dino.

Giza katearen argazkiak

Arratiarren partaidetzearen lekuko, 99. km.ko (Arratia eta Ubide) eta 41. Km.ko laurogei argazki inguru dagoz BEGITUREN webgunean ikusgai. Dana dala, eta irakurleak holan eskatuta, papelera be ekarri doguz batzuk. Aikomen.



BOXPAL
618 59 81 71
Pintura lanak
Iturgintza
Instalazio elektrikoak -aberiak
Iehio eta ateen konponketa
Pertsiana konponketa
Igeltzerotza
E-posta:boxpalboxpal@yahoo.es

OPEL
Ibaigane, s. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

g

94 631 62 05 - email: info@aramotz.com
ARA MOTZ
Lanegunen O Jantzeren!
Parrutia Ugarina 2 et. - 48001 Durango - Bizkaia - www.aramotz.com

946.319.008
658.195.091
Sartu eta ikusi!
GALANTA
zure barruko arropa
M. JOSE
barrutik jantzen zaitu
Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es
www.facebook.com/galantalehendakaria

Olaetxe
OPTICA ZENTROA
Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



Arratiarrak bialdutako argazkiak begitu.org webgunean dagoz ikusgai



BASO BIOMASA, GURE BASOETAKO ENERGIA

Euskadi aitzindaria da baliabide propio eta berriztagarriak erabiltzeko orduan, eta gure basoak energia alternatibo eta iraunkorren iturri garrantzitsua dira.

Basoetako hondakin organikoen energia-aprobetxamenduari esker, landa-inguruneke ekonomia suspertzen dugu eta, horrez gain, suteak eta baso-izurriteak gertatzeko arriskua murrizten dugu gure mendietan.

PERTSONA,
NEBURUA

¡COMPROMISO CON,
¡LAS PERSONAS!

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAIAREN
ETA LEHAKORTASUN SAIA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



EVE | Ente Vasco
de la Energía

www.eve.es

RALLYA

Igorreztarrak lasterketea itxi behar izan eben Diman

Erredakzioa

Bagilaren 21an Balcon de Bizkaia Rallya Arratiako bideetatik pasau zan eta erlojupeko atalak Diman eta Zeanurin euki ebazan. Bertan, Kepa Kallejero eta Alex Gomez igorreztarrak hartu eben parte lehenengo aldiz, rallyetan euren estreinaldia eginaz, baina Dimako atalean lasterketea bertan behera itxi behar izan eben. Ander Arana eta Arkaitz Kobeaga ereñoztarrak irabazi eben rallya.

Ibilbidea birritan osotu behar izan eben parte-hartzaileak zapatu goizean. Arrastian, oster, Goiuria eta Munitibar artean ibili ziran. Guztira Euskal Herri osotik etorritako 58 taldek parte hartu eben, Gorbeialde Racing talde antolatzaileak jakitera emon dauanaren arabera.



Autoa rallyan.

Antolatzaileak Arratian izandako laguntzea eskertu gura dabe. "Rally hau antolatuten Arratia osoko hainbat boluntario ibili ziran. Guztira 60 inguru. Pasau dan bideetako auzokoen laguntzea be ezinbestekoa izan da" dinoe.

PELOTEA

Lemoak irabazi dau XI. Berria Txapelketea

Erredakzioa

Bagilaren 21ean jokatu ziran txapelketearen finalak, eta Lemoako pelota alkarteak lortu eban XI. Berria Txapelketea irabaztea. Nagusien mailan be, Lemoarako izan zan txapela. Izan be, Imanol Arrese eta Xabier Galarzak irabazi eben Unai Onsalo eta Jon Gorriti Erreka taldekoen kontra jokatu-tako finala.

Gogorra izan zan partidu hau; 75 minutu iraun eban eta 22-19 izan zan atzen emoitzea.

Partidu honetan pelotariak ez bakarrik euren txapelak, klubarenak be eukien jokoan, eta partidu gogorra eta ona ikusi eben Herriko frontoian batutakoak.

Finalera heltzeako, lemoaztarrak, Txukun Lakua, Irurtzun eta Oberenako bikoteak kanporatu

behar izan ebezan.

Berria Txapelketea

Pelota alkarteak protagonista diran urteko txapelketa pribadu bakarra

da, Berria Txapelketea. Martiaren 9an hasi zan eta 15 aste beranduago, bagilaren 21ean amaitu zan. Euskal Herriko eta Errioxako 24 taldek hartu dabe parte bertan.



Galarza eta Arrese Erauzkinegaz.

LASTO ALTXATZEA

Arratier bi Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketako podiumean

Irati Urien

Dimako San Pedro jaietako egitarauaren barruan Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketea egin zan bagilaren 27an. Diman entrenetan dauan hirukoteak osotu eban podiuma. Hogeita hiru jasoaldi eginda lehenengo postua Jose Martin Bustinza "Tubi" k lortu eban. Bigarren, Jon Lapazaran gelditu zan hogeita bat jasoaldigaz; eta Jon Loiola igorreztarra,

txapelketa honetan lehenengoz parte hartzean dauana, hirugarrenen, hogeigaz. Tubik adierazo dauanez, ez daroa irabazitako txapelen kontua baina honezkero bost bat izango dira.

Jon Loiola, Diman bizi dan igorreztarrak egin eban hirugarren Euskal Herriko Txapelketa honetan. Diman, "Iparraldeko jokoak" egiteko leku eta materiala dago eta "Atutxa, Tubi eta horreek ikusita hasi nintzan neu be, orain dala urtebete eta erdi"



Tubi lastoa altxatzen.

dino Loiolak. Lasto altxetan espezializau arren, herri kirol guztiak gustetan



Parte hartzaileak eta Jose Mari Atutxa.

jakoz, batez be Iparraldeko jokoak Lasto Altxatzeari jagokonean,

hurrengo zitea Bizkaiko Txapelketea izango da abuztuaren.

belagorri

mediku naturista
argitzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzat elkagaiak
estetiziana

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

bbk

HERRIKO BENTAK

HOSTAL

HERRIKO PLAZA,
48142 ARTEA (BIZKAIA)
Tel. 94 631 72 56

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilegoak, Hezkuntza zirkulak

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaituz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

FUTBOLA

Txema Añibarro: "ametsa bete dogu"

Txema Añibarro (Zeberio, 1979) lehenengo mailara heldu barri dan Eibar futbol taldeko kapitaina da. Sei urte daroaz Eibar taldean eta hurrengoia be bertan egiteko asmoa dauka zeberioztarrak. Desbardina izango da, lehenengo mailan jokatuteko ametsa egia bihurtu dabe eta.



Txema Añibarro.

Erredakzinoa

Harrigarria da Eibar, hain talde umila lehenengo mailan egotea. Hau ona izango da klubarentzat ala hainbeste diru gastau behar izatea kaltegarria izango da?

Sano ona izango da. Eibar lehenengo aldiz egongo da lehenengo mailan. Ikaragarria da. Gu talde umila gara eta hori lortu izana ikaragarria da guretzat.

Jokalari askorentzat sorpresea izango zan, ze orain arte, lehenengo mailan jokatuteko Athletic-ek kontratau behar ebazala pentsauko eben, baina ez Eibar lehenengo mailan egon eite-

keala, ezta?

Gure helburua hasieran beste bat zan: bigarren mailara heldu barriak ginan eta helburua bigarren mailan mantendutea zan. Gero urtea joan dan moduan, ikusten zan lehenengo mailara heldu geintezkela, baina amets bat zan. Urtean zehar hor goian egon gara eta Gabonetatik gure artean komentetan genduan "lortuko ete dogu?". Atzenean lortu dogu, danon ametsa lortu dogu.

Zer suposatuko dau horrek jokalarion lan baldintzai jago-kienean?

Nik kontratu barriztapena mahai gainean daukat, oraindino ez dot sinatu, baina atzenean akordio batera helduko gara. Bigarren mai-

lan egotea ala lehenengo mailan egotea, alde handia da. Danean eragiten dau, klubak jasoko dauan diruan, jokalaria... danean. Hori ona da klubarentzat, jokalariontzat, eta Eibarko herriarentzat be bai.

Noz hasi zinan futboleant? Zein izan da zure ibilbidea?

Ibilbide luzea daukat, hamar urtegaz hasi nintzan eta. Lehenengo Arrigorriagan egon nintzan, gero Paduran, gero Indartsun, gero Galdakaotik pasau nintzan, gero Arratiara, handik Lemoara, gero Ondarrura, Ondarrutik Gemikara, Gemikatik Sestaora eta Sestaotik Eibarrera.

Ibilbidea luzea izan da, baina lehenengo mailara heltzea kategoriaz guztietatik pasauta, ikaragarria da.

Gustora Eibarren?

Bai. Ni izatez bizkaitarra naz eta Zeberiokoa, baina Eibar mugan dago eta atzenean ia eibartar bat naz. Sei urte Eibarren, datorren urtea zazpigarrena izango da eta atzenean apur bat nire etxea be bada Eibar. Oso ondo tratau nabe eta hor nago eta datorren urtean nire helburua hor jarraitutea izango da.

Peleteiro badoa eta beragaz suposatzen dot Jessica Bueno be joango dala. Prensa arrosan be egon da Eibar aurten. Lehenengo mailako futbolariak, batez be modeloakaz dabizanean, prensa horren helburu izaten dira eta paparazziak ikasi dabe Eibarko bidea.

Kasu berezia izan da, baina guretzat urtea bardin joan da. Hasieran apur bat mediatikoa izan zan, baina lehenengotan bakarrik, azkar pasau zan eta gu hortik kanpo egoten gara. Guk jokatu egin behar dogu, ondo entrenau eta domekero partidua irabazi.

Lehenengo mailan egoteak, Eibar-Athletic lango derbiak egongo dirala suposatzen dau. Apustua egingo dot: Eibar 2-Athletic 1. Zelan ikusten dozu? Apustua irabaziko neuke?

Txarto ikusten dot. Hor egongo dira derbiak Athletic, Erreal... guretzat hori oso polita izango da. Orain dala urtebete jokatu genduan Kopa San Mamesen eta Athletic eliminau genduan. Berezia da, ni bizkaitarra izanda eta Athletic-eko txikitik... San Mames zaharrean jokatu genduan Athletic Kopatik eliminau genduan. Orain San Mames barrira joatea eta haren kontra ligan jokatutea... amets bat da.

Zeintzuk dira zuon aukerak datorren urteari begira?

Helburua lehenengo mailan mantentzea izango da, baina orain oportet gagoz. Egin doguna bideoetan ikustean ez dakigu amesetan gagozan ala benetakoa izan dan. Hau lortzea itzela izan da.

Talde aldatu egingo da, jente barria etorriko da, lehenengo mailan mantentzea gatxa izango da baina guk dana emongo dogu.

ANDRA PROBAK

Zeanuriko andra proba taldea Santiago Txapelketara

Erredakzinoa



Zeanuriko taldea.

Zeanuriko andra proba taldeak parte hartuko dau hilaren 27an Billabonan jokatuko dan Santiago Txapelketan. Lau talde lehiatuko dira: Orio, Astigarraga, Ibarra eta Zeanuri. Talde bakoitzean zortzi kirolari saiatuko dira ahalik eta unte gehien egiten, 550 kiloko harriagaz. Igaz Oriok lortu eban txapela, 39 unte eginda.

Zeanuriko talde sortu barriak lehenengoz hartuko dau parte txapelketa baten. "Taldea potentia da, baina hasibariak gara" dino Irati Astondoa taldekoak. Dana dala, "dana emongo" dabela eta neurketan parte hartzeako gogoz dagozala dino zeanurizarrak.

Bilboko jaietan

Zeanuriko taldeak erakustaldi bat be egingo dau Bilboko jaietako herri kirol egunean.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkai)

KÄRCHER
Banatzaile
ofiziala

· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
· Garraio zerbitzua.

UDALEKUA

Euskal Herria ezetuteko Areatzatik abiatuko da AEK-ko udalekua

Erredakzioa

"Euskal Herriak muturretik muturrera" izenpean, udaleku ibiltaria antolatzen dau AEK-k. Abuztuaren 2tik 17ra izango da. Areatzatik abiatu dira eta Hiru Erregeen Mahaian amaituko dabe ibilbidea AEK-koak.

Gorka Barrenetxea antolatzaileak azaldutakoaren arabera, Areatza aukeratu dabe oso herri egokia dalako holango euskera biaje bateri hasikerea emoteko. "Bertan, guztiz euskaldunak diranak eta erdalunak alkarregaz bizi dira,

euskera eta gaztelaniak alkarbizitzan dihardue egunerokoa" dino. Eta arrazoi logistikoa be badagoala dino; izan be, Euskal Herriko lau lurraldeak hamabost egunez zeharkatzeko ez dago aukera askorik bere ustez.

Barrenetxeak dino harrera "goxoa" egiten deutseela Areatzakoa AEK-koai eta orain urte bi Barne-tegi Ibiltaria egin eban bat Arratiara bizitera etorri dala.

Mendian edo etxe barruan

Bosgarren urtea da AEK-k Barne-tegi Ibiltari hau antolatzen dauana. Lehenengo aldian ez zan 10 lagunera heldu eta gaur egun 15-20 personako lagun taldea osotuten da. Edade guztietakoak izaten dira partaideak, danak agozko euskerearen erabilera sendotuteko helburuagaz. "Ez dago pausu, pedalkada zein aldaparik helmugara eroango ez gaituanik, euskerara" dino Barrenetxeak.

Leku baten egon gura dabeneztat be badagoz euskera ikasteko beste aukera batzuk, barnetegi arruntak, ikastaro trinkoak eta abar.



ERAKUSKETEAK

Gorbeia historia eta kultura ikusgai Bilbon

Erredakzioa

Bilbo eta Gorbeia arteko lotura erakusten dauan erakusketea zabaldu zan bagilaren 17an eta urri bigarrenaren 8ra arte egongo da Foru Liburutegian. Erakusketeagaz batera berbaldiak egongo dira Gorbeia historia eta kultureagaz zerikusia daukien gaiak landuteko. Hizlarien artean egongo dira Gontzal Mendibil kantari zeanuriztarra eta Juan Manuel Etxebarria etnolinguista zeberioztarra.

Gorbeia eta bere inguruak aztertzen 20 urte baino gehiago daroazan Iñaki Garcia Uribe koordinatzaileak dau erakusketa hau, eta bertan koadroak, argazkiak, liburuak, maketak eta mapak bil-tzean ditu.

Berbaldiak

Gorbeia historia eta kultura zabaltzeko, zazpi berbaldi antolatu dabez Foru Liburutegian. Gontzal Mendibil txandea hilaren 9an izango da eta "Gorbeia, kontua eta kantua" gaia landuko dau Liburutegian. Juan Manuel Etxebarria, barriz, hilaren 23an emongo dau bere berbaldia "Mitoak eta euskara" gaiaren inguruan.

Berbaldiok bagilaren 18an hasi ziran, eta garagarilaren 30ean izango da atzena. Jesus de la Fuente dokumentalistek, Felix Mugurutz historialariak, Iñaki Garcia Uribe erakusketa honen koordinatzaileak, eta Juanjo San Sebastian mendizaleak be jardungo dabe berbaldi ziklo honetan.

**Jentea Gorbeia igoten mendi martxa baten.**

KANTALDIA

Mendibilek Bittor Kapanagaren omenez kantauko dau

Erredakzioa

Hilaren 12an, 20:00etan Otxandioko eleizan, Bittor Kapanagaren heriotzaren 3. urteurrenean, kantaldi-bertsaldia antolatu dabe euskal kulturaren erreferente bat izandakoaren omenez. Kapanagak sortutako letrak famadu egin ziran Gontzal Mendibil kantariaren eta beste batzuen abotsetan eta egun horretan Kapanagaren omenezko ekitaldian egongo dira.

Kapanagak idatzitako letrai musika ipini eutsien kantariak egongo dira bertan. Gontzal Mendibilek batera, Niko Etxart, Josu Zabala, Patxi Villamor, Txomin Bengoa eta Xeberri, hain zuzen. Xabier Amuriza, Unai Iturriaga eta Igor Elortza, Kapanaga ezagutu eben bertsolariak, be egongo dira bertan, eta Otxandioko Abesbatzak be hartuko dau parte ekitaldian. Eguerdian bazkari-solasaldia egongo da.

Kapanaga oso kanta ezagunen letraren sortzailea izateaz gainera, teoria berezia sortu eban euskerearen jatorriaren inguruan, euskal kosmogoniaren alderdi garrantzitsuak landu eban, eta kooperatibagintzan egin eban behar, beste gauza batzuen artean.

MEMORIA HISTORIKOA

Lubakiak errekeretean jarraituko dabe gazteak

Erredakzioa

Igazko moduan, Auzolandegiak 2014 programearen barruan, 1937ko Lemoatxeko lubakiak errekeretean beharrean ibiliko dira hur eta urrineko gazteak. Lemoatx 1937 Memoria Historikoa

errekeretako Batzordearen ekimenez, Lemoatxo Udalak Eusko Jaurlaritzaren Auzolandegiak programan sartu ebazan Lemoatxeko lanok igaz. Aurten be, txanda bi egongo dira: garagarilaren 16tik 30era lehenengoa; eta abuztuaren 1etik 15era bigarrena.

na.

Helburua igazkoa amaitutea dala azaldu deutso BEGURI Mikel Garciak, Lemoatxo Udaleko Gazte teknikari eta auzolandegi honeetako arduradunak. Horretarako, txanda bakotxean 20 gazte inguru egingo dabe behar, Aranzadi alkarteko Asier Izagirrearen zuzendaritzapean. Igaz 120 m² inguru errekeretean ziran baina hori baino gehiago falta dala ondino dino Garciak.

Lemoatxeko bataila

1936ko gerran, Burdinazko Gerrako defentsarako Lemoatx leku estrategikoa izan zan bere kokapen eta ezaugarri geografikoakaitik eta 1937ko maiatzaren 28 eta bagilaren 15aren bitartean bataila garrantzitsua egon zan bertan. Horren lekuko, igaz bertan topautako bala zorroak, granada zatiak eta obusa berbarako.

Trintxerok errekereteaz gainera, Lemoatxeko baseleiza barriztu eta beste erabilera bat emoteko proiektua be badago, baina, Garciak esandakoaren arabera, momentuz "geldi dago ez dalako finkatu zer egingo dan".

LARRE ALDAKETEAK

Egun batez artzain

Erredakzioa

Bagilaren 29an, bere artaldea hartu eta Arrabako landetara abiatu zan Enrike Etxebarria, urtero lez, ardiak Gorbeia larretan emon dagien uda. Elexartza baserriak Arrabako landetarako bidea Etxebarria eta bere ardiak, 40 lagun ingururen konpainian egin eben. Izan be, Ipizki taldeak larre aldatetan lagunduteko aukerea eskeintzen dau.

Goizeko bederatzietan Zeanuriko plazan batu ziran ardiakaz

goiza pasetako asmoz, Arratiatik eta kanpotik etorritakoak. Hogei minutu beranduago Etxebarriagaz alkatu ziran Elexartza baserriaren aurrean. Han, Enrikek bere artaldea batu eta arreba Ana Mari artaldea bedeinkatu eban "San Joanek jagon dagizala Arrabako landan" esaldia esanda. Arraban, Etxebarria artzainaren txabolea bisitetako aukerea izan eben artaldegaz igon ebenak eta ordu bi terdietarako, Zeanuriko plazan ziran mendiko buelta eginda.

**Igazko auzolandegiko irudi bat.**

TXAPELKETEA

Ibabe Beristain, igazko txapelduna, aurten be Igorreko Aurreku Txapelketan



Erredakzioa

Igorreko XIII. Aurreku Txapelketa hilaren 5ean izango da Igorreko Kultur Etxean. Bertan Bizkaiko hamaiak aurrekularik hartuko dabe parte, tartean Asier Etezarraga Igorrekoa. Atzen urte biotan garai le izan dan Ibabe Beristainek be emon dau izena. Ikuskizuna arrasiko seiretan hasiko da.

Igorrera lehenengoz datorren aurrekulari barri batek hartuko dau parte, Josu Marcos 9 urteko deustuarrak, hain zuzen. Gazte-gazteak dira atzen urteotan hasi diranak, Ibaibe Beristainek berak be 15 urtegar irabazi eban 2012an, XI. Igorreko Aurreku Txapelketa. Nesken partaidetzea be finkatuz joan da aspaldi honetan, eta aurten lau neska eta zazpi mutil lehiatuko dira Igorreko txapela lortzeko.

Jota eta porru erakustaldia

Partaide guztiak jantzan egin ostean eta epaimahaiak ebazia hartu bitartean, jota eta porru erakustaldia egingo dabe Santurtziko Lander Campos eta Leioako Haizea Ormaetxeak. Bikoteak hainbat txapelketa irabazi ditu jantza sueltoan.

LIBURUA

Baltzola babestuteko batu dira disziplina desbardineta ikerlariak



Dimako udaletxean egin zan liburuaren aurkezpena.

Erredakzioa

Baltzola, Ama Lurraren altzoa izeneko liburua Baltzola kobeak eta inguruak daukien aberastasuna edo altxorra jakitera emoteko helburuz egin da. Joxerra Aihartza irakasle eta ikerlariaren ideatik abiatuta, bera eta Dimako Udalaren izenean, Rafa Ugalde alkatea izan dira proiektuaren arimak, koordinatzaileak eta zuzentzaileak. Abel Ariznabarreta, Angel Larrea, Urtzi Uriarte, Jabier Les eta Lydia Zapata dira liburu hau sinatzen daben beste izen handiko profesional batzuk.

Lana bost ataletan bananduta agertzen da. Lehenengoa, Historia (Dimakoa eta Indusikoa, atzen auzo honetan jaio ziran Zamakola anaia buruzko datuak emoten dira) Abel Ariznabarreta irakaslearen ardura dago; bigarrena, Mitologia (bertako legendetako azterketa eta ipuin asmatu bat agertzen dira) Angel Larreak egin dau; hirugarrena, Arkeologia arloari jagokona, atzen urteotan indusketak egiten dituan Lydia Zapata arkeologoak idatzi dau; laugarrena, Espeleologiari dedikatua, Urtzi Uriarte eta Jabier Les, alor horretan espezialistak, izan dira arduradunak; eta bosgarrena, Zoologiagaz lotuta, Joxerra Aihartzak, Baltzola koban dagozan saguzarren ikertzaileak egin dau.

"Baltzolak espazio babestua izan behar dau, Urkiolako Parke Naturalaren barruan. Baltzola garrantziaz berba egiterakoan, hona hemen puntu honeek: naturaren aldetik interes faunistikoa (bertako saguzarrak) dauka; lurpeak, bere aldetik, interes espeleologikoa; arkeologia eta antropologiaren aldetik be interes zientifikoa erakusten deusku, baita be gordetan dauan interes historikoa eta mitologikoa. Ahaztu barik bere horretan eskalada eta inguruan beste kirol batzuk praktikatuko erea be badagoala" aldarrikatzen dau Angel Larreak.

Joxerra Aihartza eretxi bardi-nekoa da. "Baltzolan oso alderdi desbardineta balioak biltzean dira, naturak eskeinitako altxor ederraz harago. Bertan biltzean da gure arbasoen eta Euskal Herriko lehenagoko biztanle izan ziran neandertalen bizileku eta babes izatea milaka eta milaka urtetan, gure euskal kulturako errailetan dagozan hainbat mitoren erreferentzia eta bizileku izatea (Mari, Sugoi, lamiak, eta abar). Gure historiaren zati handi bat be bertan eta bertako inguruetan gertatu izan da. Eta jakina, naturaren aldetik be gure parebakoa da, bai fenomeno geologikoa gisa, bai eta ekosistema eta biotopo berezi moduan be" dino Aihartzak.

Dimako Udala Baltzola babesten

Baltzola ondare garrantzi handikoa da. Atzen hamarkadotan jente pilo inguratu da bertara -ehunka persona edozein astegoienean, eta horrek arazoak ekarten ditu, holango guneak ezin deusie eta, muga bako giza presinoari eutsi kalteak izan barik.

Holan, Baltzola babesteko neurriak hartu ditu Dimako Udalak Eusko Jaurlaritzaren laguntzeagaz. Batetik, bertan orain gitxi izandako saguzarren koloniak berreskuratzeko plan bat jarri da martxan,

eta horretarako hainbat barrenbidetarako sarrerea itxi eta mugatu egin da. Gainera, itxitura horreen bitartez Baltzola haitzuloetako zenbait barrenbidetako ekosistema espeleologikoa be babestuko da: bertako ornogabeak, onddoak, eta abar. Eta aldi berean barrenbide horreetan dagozan eta egon daitezkezan ondare arkeologiko eta paleontologikoak be babestu egiten dira. Eta hau baldintza ezinbestekoa da hurrengo urteetan garatuko diran ikerketa garrantzitsuetarako. Aihartzak alkatea liburu honetan egin dauan lana nabarmendu gura dau. "Azpimarratzekoa da liburuaren koordinazioa eta edizino-lanaren zatirik handiena Rafa Ugaldek egin daua, Dimako alkatea. Bere ekarpena ezinbestekoa izan da liburu aurrera aterateko, testuak orrazten, behin eta barri zuzentzen, euskeratik erdarara -eta behar zanean alderatiz- itzultzen, make-tazinoa zaintzen... lan eskerge egin dau. Hasikeratik konpromiso personal irmoa hartu eban proiektu osoa aurrera atera eiten, eta holan izan da".

Espezialisten borondatezko beharra

Borondate hutsezko lana egin dabe liburuan parte hartu daben espezialista guztiak. "Egileak eza-gutzen dituen atzen datuak lan egin dabe, gauzak kontetako orduan erarik errezena erabiliz. Beraz, proiektu honen helburuetako bat dibulgazioa izan da. Beste helburu bat diseinuaren ekarpena izan da: hainbat ilustrazio, argazki eta mapa orrietan tartekatuz. Atal honetan ezin dogu itxi aitatu barik, Dimako Laratzu Taldearen izenean Abel Ariznabarretaren ekarpena" azaldu dau Larreak.

Euskeraz eta gaztelaniaz

Liburu 7 euroan dago salgai Dimako dendetan eta Igorren be bai. Horretarako, 1.000 aleko argitalpena egin da, 500 ale euskeraz eta beste 500 ale gaztelera. Argitalpenaren lanaz Eubako Erroteta etxea arduratu da, eta gaztelera argitalpenaren izenburua *Baltzola. Entrañas de Ama Lur* izenagaz atera da.

Proiektu honen
helburuetako bat
dibulgazioa izan da

www.begitu.org

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



AGENDEA

GARAGARRILAK 1

BEDIA

"Euskara eta euskaldunak munduan"
postak/argazki/irudi lehiaketeta.

GARAGARRILAK 4

DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz"
erreprealiaduen aldeko konzentrazioa
plazan.

LEMOA

Hilaren 13ra arte, Ganzabal Mendi
Taldeak antolatuta, udako urtekerak
bereziak Sierran Nevadara.

GARAGARRILAK 5

IGORRE

18:00etan, Igorreko XIII. Aurreku
Txapelketeta. Kultur Etxean.

GARAGARRILAK 6

ZEANURI

09:30ean, Xorokil harrobira ibilaldi
gidatua. Angel Larrea eta Joxerra
Aihartzagaz. Arratia Bizirik taldeak
antolatuta.

GARAGARRILAK 7

LEMOA

Hilaren 18ra arte, 11:00etatik 14:00etara,
ludotekeak igerilekuan 3 eta 12 urte
bitarteko umeentzat.

GARAGARRILAK 10

IGORRE

San Kristobal jaiak San Kristobal auzoan.
Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

GARAGARRILAK 12

AREATZA

08:30ean Parkebeak antolatuta, mendi
urtekerak. "Gorbeia basoak ezagutzen:
Ubide-Oketa-Azero".

GARAGARRILAK 14

BEDIA

Hilaren 18ra arte, Uda Gaztea.



Larregi Lemoako jaietan

Hilaren 30ean, gaueko hamabiak eta laurdenetan Larregi taldeak kon-
zertua eskeiniko dau bere herriko jaietan. Bediako jaietan be egon zan
Larregi bagilaren 21ean, rock zaleen gozamenerako. Taldea, "Harro
bizi euskeraz" kantua egilea da eta bere herriagaz atxekimendua eta
konpromisoa erakusten dau bere musikan.

Taldea 2009an sortu zan eta 2010ean kaleratu eban lehenengo
CDa. Gaztea Irratiaren Maketa Lehiaketan entzuleen saria irabazi eben
2011n. 2012an *Bidea dugu helmuga* diskoa atera eben eta 2013an
"Harro bizi euskeraz" bideoklipa Lemoako Euskera Planagaz alkarlanean.

GARAGARRILAK 18

ARTEA

Santa Marina.

DIMA

Santa Marina Bargondian.

ZEBERIO

San Segismundo Upon.

GARAGARRILAK 19

ZEANURI

San Inazio jaiak Ipiñaburun. Ikusi egitaraua
7. orrialdean.

GARAGARRILAK 22

DIMA

Madalenak Lamindaon.

UBIDE

Madalena jaiak.

GARAGARRILAK 24

LEMOA

Hilaren 27ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak
antolatuta, urtekerak Pirinioetara.

GARAGARRILAK 25

IGORRE

19:30ean, hileko atzen barikua, preso eta

erreprealiaduen aldeko konzentrazioa.

LEMOA

19:30ean, hileko atzen barikua, preso eta
erreprealiaduen aldeko konzentrazioa.

ZEBERIO

20:00etan, hileko atzen barikua, preso eta
erreprealiaduen aldeko konzentrazioa.

GARAGARRILAK 26

LEMOA

Tallerreta eta Lemoretako jaiak. Ikusi
egitaraua 7. orrialdean.

GARAGARRILAK 29

LEMOA

Lemoako jaiak hasten dira. Ikusi egitaraua
5. orrialdean.

GARAGARRILAK 30

LEMOA

21:00etan, kuadrilen jaietako afaria
kiroldegian.

GARAGARRILAK 31

AREATZA

Gorbeia igoteko autobusak.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa
salgai. Gaggia Nera markakoa. 600
eurotan. 619 728 188 (Unai).

AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai,
10 urte. 104.000 Km. Interesdunak 94
631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA

SALGAI

Lur Hiztegi Entziklopedikoko 10 tomo
salgai, egoera onean, barriak legez.
Interesdunak idatzi mezu bat e-mail
honetara: l_laztana@hotmail.com.

UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta
maxicosia saltzean dodaz neguko
eta udako fundeagaz. Interesdunak
zagozenak 616 799 356 telefonora deitu
(Laura).

VENDING MAKINEA SALGAI

4 urte dituan vending makinea salgai.
279 produktu sartzeko kapazidadea
dauka. Interesatuak 645 725 252 edo

606 771 708 telefonora deitu.

EROSI

TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soinu erosiko neuke. 653
716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

DANERIK

TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro
inguru. Interesdunak deitu 656 742 768
(Bego) telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu,
trukea egin, behar edo
behargin bila bazagoz, bidali
asko jota 25 berbako mezu
bat. begitu@topagunea.com-
era. Mezuak doban dira.**

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxoa.

Karmelo Uriarte (Igorre)



2 Gorbeia Suzienek emondako kamiseta bana.

Naiara Iza (Dima)
Araitx Rekalde (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Letra bat. Akats.
- 2.- Zidarra. Andrea.
- 3.- Ondo egiten dauanari.
- 4.- Jardun. Oxigenoa.
- 5.- Musika nota. Bokala. Alde hemetik!
- 6.- Bokala. Nasai.
- 7.- Egainu.
- 8.- Gerrearen jainkoa. Neodimioa.
- 9.- Ubide. Uranioa.

GOITIK BEHERA

- 1.- Astinaldia. Goragaleak etorri arte ase.
- 2.- Inontz. Kretako mendia.
- 3.- Mila erromatar. Nori atzizkia.
- 4.- Azkar. Arreta.
- 5.- Saguak harrapetan ditu. Ezetza. Berrogeta hamar erromatar.
- 6.- Arrantzan erabiltzen da. Ogia egiteko osagai.
- 7.- Eguzkiaren jainkoa. Bazkalordu.



Topau zazpi animalia mustelidoren izenak.



AKI MI KO

Zorrozkilo



Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baitonak: A1, A, B7E, B
Lehendakari Agirre 34
Tfnoa: 94 673 71 52
48140 IGORRE (Bizkaia)
garante@autoeskola.net

AKETEGIA
GAV 5 LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDARUN HUGAZTINEN
ASIGURUTAN
Salme Arria, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 81 - 48140 IGORRE

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 54 IGORRE-BIZKAIA

axular
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
Lan Publikoak
Indusketa
Garrarioak
Ur Sareak
Saneamentu Sareak
Baserru eta Basoko Bideak
Pabelloak
Urbanizazioak
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolaraz zain endaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unidas@autoeskola.net

OIHANE GOIOAGA

"Ganbian gazte asko Europara begira bizi dira"

Oihane Goioaga igorretarrak argazki ederrak bialtzen ditu BECITUREN argazki lehiaketara. 2010ean irabazi eban eta beti heldu dira finalera bere argazkiak. Sekretua jakin guran, beragana jo dogu. Boluntario beharrak egiten dituala kontau deusku eta argazki bakotzak historia bat kontetan dauala. Hortik bere indarra.

**Erredakzioa****Boluntario beharrak egiten dozuz, Afrikan batez be? Ze erakundegaz zagoz beharrean?**

Ez dogu erakunde konkretu batez beharrik egiten, destinoaren arabera, herrialde horretan beharrean dagozan GKEakaz (gobernuz kanpoko erakundeak) kontaktua egin eta haren bitartez joaten gara lagun bat eta biok. Erakunde txikiakaz mobidutea gustetan jaku. Egia da gehienetan Afrikara jo izan dogula baina Indian be egon gara, esaterako.

Nozdik eta zein lekutan ibili zara? Zein da gehien inpaktu zaituan herrialdea? Zergaitik?

Senegal eta Rumania moduko herrialdeetan motxilero eran udak pasau eta gero, zeozer gehiago egiteko gogoia sartu jakun eta 2010ean Indian joan ginan lehenengo bolondres beharrak egiten. Indian ostean, Ghana, Maroko eta Ganbian egin doguz beharxoak.

Gehien inpaktu nauan herrialdea India izan da. Lehenengo esperientzia zan bolondres beharretan, eta hain hurretik bizitea herrialdeko egoera oso gogorra izan zan. Gaur egunean ikusitakoak ikusi eta gero be, Indian besteko pobreziarik eta muturreko egoerarik, ez dogu ikusi oindino.

Ganbiako Jirongen 5 astetan egon zinan udan eta aurtengo aste santuan be beste 3 aste. Kontaiguzu esperientzia hori.

25-30 biztanleko herri bat da. Ganbiako ekialdean dauan herri honetan atzenengo 30 urteetan ez da inor bizi izan eta "baso" bihurtuta, dana bedartaz tapauta egon da. Bertan jaiotako gizon bat barri herria bueltau eta martxan

ipini dau dana, bedartzak garbitu eta etxeak eregiten hasi dira heritarak.

Larrabetzuko lagun bat eta biok joaten gara udan alkarregaz atzenengo zortzi urteotan. Baina aurtengo aste santuan udan han ezetutako Sodupeko neska bat be etorri zan.

Normalean, proiektu zehatza eukiten dabe GKEak, baina oraingoan ez genduan behar konkretu bat eroan. Bedar txarrak kentzean ibili gara, etxeetako hormak pintetan, ortuan beharrean, errekan arrantzan, herriko umeakaz olgetan...

Herriko etxe baten egon ginan, bertakoen moduan, lastozko ohean egiten genduan lo, lurtean ezarri eta erdian ipinitako plater bakarretik jan, nahiz eta guri koilarak ekarten euskuezan eta eurek eskuakaz jan.

Zelan bizi da jentea han? Ze premia daukie?

Beharizan handiak daukiez, hiru-lau hilabete inguruko izaten da eurite sasoi, ortuetan landatu eta uzta jasoteko, eta denpora horretan egindakoagaz bizi behar izaten dira urte guztian. Ortuetan behar egiteko be material handirik ez dabe eukiten, kasurik onenean traktor bat herri guztiarentzat eta traktorearentzako gasolinarik ez askotan... Dendetan jakiak erostea oso garestia da eurentzat. Etxean produzidutakoagaz edota arrantzatutakogaz egiten dabez jatordu gehienak.

Gazte asko Europara begira bizi dira. Telebisinoa herri gehienetan egoten da eta ez badago, kilometro bi edo gehiago egiten dabez telebisino aurrean ezarteko. Harrigarria da zelan batzean diran telebisinoaren aurrean eta penagarria telebisinoak transmitiduten deusena. Herrialdea

bertatik landu eta aurrera atera beharrean, askok eta askok kanpora urtetako gogoia erakusten dabe.

Behi bi erosteko proiektua martxan ipini zenduen. Norentzat ziran behi bi horreek?

Udan bost aste herri berean egon eta gero, oso lagun handiak egin genduzan, harreman estua sortuten da. Normalean maletan eroaten doguzan erropak eta medikamentuak toketan dan lekuan ixten doguz, baina bigarren buelta honetan zeozer gehiago egin gura genduan. Bertakoak ezetuta, eta bertako beharizanak zeintzuk diran ondo jakinda, behar-rako balioko leukien behi bi erostea akordau jakun, hemen lehenago idiakaz egiten zan beharra egiteko. Herri guztiaren onurarako dalako.

Zein zan proiektua? Lortu zenduen behiok erostea?

Lehenengo, Ganbian behi bi erosteak zenbat kostauko leuken enterau eta gero dirua batzean hasi ginan, Facebooken orri bat sortu genduan eta *paypal* bidez ordainketa bide bat zabaldu, bakotzak ahal dauan neurrian lagunduteko. Gero inguruetako herrietako tabernetan itsulapikoak ipintea pentsau genduan. Beste diru iturri batzuetan pentsetan gengozala, Facebookeko orriak arrakasta itzela euki eban eta hamabost egunean behar genduan dirua batuta geunkan. Holan ba, ez genduan ahalegin gehiago egin informazioaren zabalkundean. Oindino be lagun askok esaten deuste ezer ez dabela jakin eta bronkatxo botaten deuste. Esan beharra daukat Euskal Herriko txoko askotatik heldu jakula laguntzea baina zatirik handiena Enkarrietatik jaso dogula.

Behin Ganbian egonda, astebete behar izan genduan behiok erosteko. Lehenengo eskuan eroan genduan diru guztia banku baten sartu genduan, diru kantidade handi horregaz ez ibilteko. Uriburitik gure herrira ia

egun bateko bidea dago eta diru asko zan aldean erosteko. Bertako dirura kanbiau beharra, behien tranteagaz harremanak egin, behiak ikusten joan... astebete! Baina asteagarenean Jirongen egoazan behiak. Hobeto esanda, behia eta zekorra.

Zelan eroan zenduezan behiok?

Gure herrian *pick up* bat dago danerako balio dauana, personak garraiatuteko, herriko errekaduak egiteko, ambulanti beharrak egiteko eta behiak ekarteko be bai!

Herrira heldu ginanean behiak oso pozik gengozan danok, gu eta heritar guztiak baina behiak kotxetik bajatu ziran... zekorra eskapau egin jakun! Iluntzea zan eta ahalegindu ginan zekorra topetan baina ez genduan lortu. Inguruko herri guztietan zer pasau jakun esplikau genduan eta hurrengo egunean itzartu ginanerako han geunkan zekorra arbolari lotuta! Inguruetako herri bateko tipo batek ekarrita!

Hurrengo egunetan beste beharren bat egin zenduen?

Proiektu nagusia behiok erostea zan baina pentsau baino diru gehiago lortu genduan, guztira 1.536,10€, gauza gehiago egin genduzan.

Laburrean kontetako, Jasobon, errekan bestaldeko herri txiki baten, herriarena zan traktorea konponduteko dirua itxi genduan. Iliasako ospitalean, zonalde handi bat atendituten dauan ospitale txiki baten, 100€ itxi genduzan medikamentuetan, aurretik ospitaleko zuzendariagaz berba egin, zer behar eben galdetu eta zerrenda horregaz joan ginan farmaziara medikamentuak erosten. Farafeniko ospitalean, inguruko urian, 150€ medikamentuetan, Iliasako modu bardinean kudeatuta. Alkalikunda herrian, ikasturte amaierararteko eskola ordaindu geuntsen umezurtzai. Jumansari Koto herrian, zortzi familia behartsu bizi dira eta fa-

milia bakotxari arroz saku bat eta orio garrafoi bi eroan geuntsezan.

Zer da gogorrena eta zer ederrera?

Gogorrenak lehenengo egun biak eta atzenengo biak izaten dira. Lehenengoak, herrialdera egokitutea kostetan dalako, ordu aldaketea, klima aldaketea, hizkuntza aldaketea, kultura, erlijinoa... bizimodua atzen finean. Eta atzenengo egun biak hasikerakoak baino gogorragoak izaten dira. Bertako jentea, lagunak, familia agurtu beharra eta atzera inoz ikusiko ez dozulala pentsetea...

Ederrena, ostera, bertako jentea. Askok daukagu ikasteko... egon garan leku guztietan etxeko egin gaitue, etxeko sentiduarazo, familiako. Daukiena daukiela gehienetan gitxi gainera, dana emoteko prest egoten dira. Adibidez, baten baino gehiagotan pasau jaku, lagun batek bere ohea itxi eta bera auzokoarenera joatea gaua pasetan gu ondo egoteko.

Esperientzia honek jasota daukazuz argazkietan eta urtero hartzean dozu parte gure lehiaketan. 2010ean irabazi egin zenduan. Aurten be parte hartzeako asmorik?

Argazki piloa daukagu aterata bai. Gustetan jata egon garan lekuai erretratuak ateratea, asko lagunduten dau! Paisajeak alde batetik, oso desbardinak diralako eta personak, irribarreak, eropa koloretsuak, jakiak... oso argazki politak urtetan dabe ahalegin handiegirik egin barik be!

2010ean irabazi neban Indian ateratako argazki batez eta hurrengo urtean bigarren egin neban Ganbiako argazki batez. Parte hartzean segiduko dot bai! sariakaitik baino gehiago ateratako argazki guztien artean argazki espeziala topetan lagunduten deustalako eta zeozelan bizitako momentu bat zuokaz konpartiduteko.



Zure herrian edo kalean topau zeinkean eskaparate bat baino gehiago da komertzio txikia. Hurbiltasuna, aukera desbardinak, kalidadea, berotasuna... hori eta gehiago da. Ezeluten dozun jentea da, egunero irribarre batez "egun on" esaten deusena. Zure bizitzaren parte da, gizartean lagundu eta parte hartuten dauana, jaietan, herrian, kulturean...

